





# MARIJESIAK

## ABENDUKO KOPLAK



LABAYRU IKASTEGIA

**bbk<sup>2</sup>**

BILBAO  
2014

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

Egileak: Igone Etxebarria, Akaitze Kamiruaga

Azaleko irudia: Akaitze Kamiruaga. Labayru Ikastegiko Argazki Artxiboa

© Argitaraldi honena: Labayru Ikastegia – BBK Fundazioa

Labayru Ikastegia

Colon de Larreategi, 14-2 esk.

48001 Bilbao

Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58

Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.

Silutegia: Gestingraf, S.A.L.

Lege Gordailua: BI-1513-2014

ISBN: 978-84-92599-48-6

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

*Eskerrak lan honetarako informazinoa eta irudiak lortzen era batera edo bestera lagundu deuskuzuen guztioi. Zeuoi esker dagoz marijesiak bizirik eta zuek zarie lan honen egileak zati handi baten.*



## AURKIBIDEA

Berbaurrea .....	9
1. Neguko zikloa herri egutegian .....	11
2. Gabonak .....	14
3. Marijesiak. Abendua. Kebonikoak .....	18
4. Jatorria .....	20
5. Lehenengo testigantzatetik hona .....	22
6. Kantau edo erreza .....	27
7. Kanturako egun-orduak .....	28
8. Ibilian, geldian, belauniko .....	31
9. Kantuen banaketa egunen arabera .....	34
10. Kantari taldea .....	36
11. Osagarriak .....	40
12. Eskea .....	44
13. Kantuaren berbak .....	46
14. Kontakizuna .....	56
15. Koplen ezaugarri estilistikoak .....	61
16. Bizkaian baturiko aldaera batzuk .....	67
1. Munitibar .....	68
2. Arrieta .....	75
3. Larrabetzu .....	79
4. Oleta .....	83

5. Bermeo 1 .....	84
6. Bermeo II .....	85
7. Gernika-Lumo .....	88
Bibliografia .....	91
Argazkien kredituak .....	93



## BERBAURREA

*Marijesiak, Abendua, Kebonikoak.* Hiru izen gure artean zabal egon dan eta hondino be bizirik dagoan tradizino bat izendatzeko. Gabonak iragarteko eske-errondak dira Marijesiak. Bizkaiko herri batzuetan izen hori emoten jake, baina berez Euskal Herri osoan egiten (izan) dira antzeko errondak.

*Geureak – Herri ondare bilduma* etnografia eta herri ondareari buruzko monografiak argitaratzeko sortu zan. Sorta berenberegikoa da *Marijesiak: Abenduko koplak* izeneko hau agertzeko, gure ondareko atal berezi eta estimatua da-ta.

Labayru Ikastegiak euskal herrietako bizimodua aztertzen eta ikertzen dihardu sorreratik hara. Aztergaien artean eguneroko bizimodua osotzen daben arlo guztiak hartzen dira kontuan: jatekoak, jantziak, bizilekuak, ogibideak, olgetak, hartu-emonak, auzo eta herrien antolaketa, bizitzako unean uneko errituak, kantu eta kontuak, ospakizunak...

Marijesiek holango atal bat osotzen dabe gure kulturaren eta tradizinoan. Horregaz jaubetuta, auzo eta herri askotan ibili gara informazino bila. Alde batetik, tradizino bizirik gordeten daben herrietan lekuan lekuko taldeakaz egon gara, errondea bera grabau deutesgu eta baita horren inguruko barriak batu be: noiztik datorren ohiturea, zertan aldatu dan denporegaz eta abar.

Errondarietak batera ibili gara Abadiñon (Mendiola), Ean, Gauegiz Arteagan, Gernika-Lumon, Iurretan, Lekeition eta Muxikan (Ariatza, Gorozika, Ibarruri). Berez ohitureak zabalera handiagoa euki dau; gure inkestak eta galdetegiak egin orduan, beste herri askotan batu izan dogu kantua, informanteok errondearen errasturik gogoratzen ez badabe be. Horreekaz danokaz atondu ahal izan doguz liburu eta bideo honeek, jakingarri asko batuta.

Herritik herrira Marijesi edo Abenduaren tradizinoak gorabeherak izan ditu denporan zehar. Leku batzuetan hutsik egin barik eutsi deutesie, beste batzuetan alaketak eta hutsuneak egon izan dira, barriztauta eta indarbarrituta dagoz beste batzuk, Olentzero gure artean zabaldu zanetik kantua haregaz nahastean geratu da lekuren batzuetan.

Aldaketen artean aitatu daiteke, antzeko beste tradizino askotan moduan, honetan be andrazkoak eta umeak berez-berez joan dirala sartzen; eskearen helburua be asko aldatu da, lehenago preminea izaten zan eskatzeko erraioia, gaur egun laguntzeko batzen dabe kantariak.

Lana euskarri bitan aurkezten da, liburuan eta DVDan. Liburuan tradizinoak dakarzan hainbat ezaugarri banan-banan garandu izan dira: kantetako modua, ordua, iraupena, kantua bera, musika edo makilarik erabilten dan, eta beste batzuk. Horrez ganera, kantua aldaera batzuk emoten dira, ahozko transmisinoan egin daben ibilbidea ikusteko. Argazki asko dagoz testuaren osagarri, horreetariko batzuk herrian herriko laguntzaileek eurek eskuratutakoak. DVDan, azalpenak kantuakaz batera dagoz, lekukoaren informazinoakaz osotuta. Eta beste alde batetik, leku bakoetako kantua osorik edo ia osorik entzuteko aukerea dago.

Labayru Ikastegiak ahalegin handia egin dau lekukotasunak batzen, baina hau dana ez zan posible izango lekuan-lekuan euki ditugun laguntzaile, informazino-emoile eta kontaktuen laguntasunik barik. Ate asko jo behar izan ditugu dana lortzeko, eta dan-danetan alderik alde zabaldu deuskuez ateok behar dan guztian erreztasunak emoteko. Horreri esker osotu ahal izan dogu lana emaitza honetara heldu arte. Geratuko ziran gauza gehiago esateko, bitxikeria gehiago aitatzeko eta herri gehiagotako tradizinoak batzeko; horregaitik, beharren jarraitzeko gogoan gara. Ha ta guzti be, ikuspegi orokorra nahiko osoa dala esan daiteke.

Lan honegaz ez da agortzen gai honetaz esan daitekena; bestetara, aurrerantzean beste zantzu eta barri batzuk batzeko eta gehitzeko atxakia izatea gura geunke. Hori halan dan geroak esango dau.

Labayru Ikastegia  
*Herri Ondare Atala*